



Antxon Alfaro eta Juan Karlos Mora, Alza.net egitasmoaren bultzatzailetako bi.

Karlos CORBELLÁ

Antxon Alfaro: «Euskal Herrian internetek ez du dirurik ematen»

ALTZANET (www.altza.net) Altzako Historia Mintegiak bultzatutako eta garatutako proiektu kulturala da. Proiektu honen asmoa Altzako herritarren sare telematikoaren sortzea da eta bere eragin-eremua Altxa herria da, Donostialdean dagoen hirigunea eta Donostiak 1940. urtean, frankismoak zekarren egoera larderiatsua aprobetxatuz, anexionatu zuena.

• Amaia AGIRREGABIRIA

Gaur, beste batzuen artean proiektuaren sortzaile eta bultzatzaile diren Antxon Alfaro, Iñigo Landa eta Juan Karlos Morarekin izandako solasaldiaren berri eman nahi dizuegu, eta asmo eta etorkizun handiz beteriko proiektu txiki hau aurkeztu.

Nondik eta nola sortu zen Altzak web-gune bat behar zuelako ideia?

A.A.- Teknologia berriek Altzako komunitatearentzat kultura, gizarte, hizkuntza eta ekonomia arloetan zein arlo politiko administrazioan ekarpena egin zezakete-la ohartu ginen. Gainera, gure elkartearen helburu nagusietako bat bultzatu nahi genuen, hots, Altzako iragana eta egungo errealitatearen ikerketa eta ezaguera bultzatu, Altzaren nortasuna ezagutu eta garatu nahi duten beste elkarte eta erakundeekin lan egin eta, era berean, altxatarrak bere herriarekin identifikatzea, Altzaren etorkizunaren eraikuntza bere gain har dezaten. Ideiak abiapuntu sortu zen ALT@NET proiektua.

Altxa bezalako herri batek eduki nahikoak eskaintzen al ditu? Zeintzuk dira eduki horiek?

J.K.M.- Nik diferentzia bat egingo nuke: Altzako dokumentazioa eta Altzako in-

formazioa. Lehenengoa, edozein lekutik jaso eta bila dezakegu; bigarrena, aldiz, Altzak sortzen duena da eta, nire ustez, gure web orria zenbat eta garrantzitsuagoa izan eta erabili, geroz eta eduki gehiago eskainiko dira.

A.A.- Edukiak inoiz ez dira nahikoak. Agian momentu honetan garrantzi handiagoa eman behar diegu gazteei interesatzen zaizkienei. Ikastetxeetan erabiltzen ditzaketenei ere. Nire ustez, momentu honetan erabiltzaile potentzialak gazteak eta ikasleak baitira.

Aldiz, Altzako informazioa bultzatzeko, aldezkarri digitalaren proiektua martxan jarzea ondo legoke. Alderdi hau oso garrantzitsua ikusten dut, Altzak ez baitu lekurik hedabideetan eta, azaltzen denean, Donostiako zati baten irudiz ateratzen dute. Altzak bere nortasunez eta bere arazoez bilatu behar du leku bat gizarte birtual berri honetan.

Zuen ustez, zer garrantzi eduki dezakete zuen proiektuak eta antzekoek Euskal Herriko e-panoraman?

I.L.-Hor dago globalizazioaren gaia. Teknologia berriak, uniformatzeko balio duten bezala, baliagarriak izan daitezke sortu diren mota guztietako minorien arteko komunikazio sare gisa. Euskaldun gutxi gara (euskaraz hitz egin eta idatzi nahi dugunok) eta barreiatuak gaude ge-

ografia osoan. Internetek Etxeparearen garaiko inprentaren garrantzia izan dezake. J.K.M.- Globalizazioari erantzuna eman behar dio zalantzarik gabe, Euskal Herriko mugimendu, kultura zein herriak aurkezteko eta haien artean harremanetan jartzeko.

Nola ikusten duzue Internet Euskal Herrian?

I.L.- Diotenez, gainontzeko herrialdeetan baino gutxiago erabiltzen da. Telefono zerbizua oso eskasa da, motela eta garestia. Zerbitzu hau, argia, irratia edota telebista bezain unekoak izan bitartean, Internet oso ezerosa izango da. Hortik aparte, edukie begira, badaude gune batzuk duintasunez mamia eskaintzen dutenak, baina, kasu gehienetan, itxura hutsa da. Agian, rock&rollak bezala, Euskal Herrian Internetek ez du dirurik ematen eta zale amorratuentzat eta instituzioentzat dago oraingoz soilik zuzenduta.

A.A.- Edukiak euskaraz jarri behar dira, baina ez itzulpenak bakarrik, EHko taldeek, erakundeek, norbanakook... edukiak euskaraz eskaintzen saiatu behar dugu, hemendik eginak eta hemengoentzat. Eta hortik aurrera... gaztelaniaz, ingelesez, frantsesez, txineraz...

Baina ez edukiak bakarrik, zerbitzuak ere euskaraz eskaini behar dira eta, ahal den neurrian, gure nortasunean oinarrituz.